



Espainiako Txapelketan taldeka irabazi nahi du EMF selekzioak igande honetan Castellóko Mabo Borriol maratoian

2018ko ekainak 8. Artean Zegama-Aizkorriko emaitza onen energiarekin, Euskal Mendizale Federazioaren mendiko korrikalariak badute hitzordu garrantzitsu berri bat: Espainiako Txapelketa, banaka nahiz erkidegoka, Mabo Borriol mendi Maratoian, Castelló-ko Plana Alta eskualdean, ekainak 10 igandean..

Aurtengo Espainiako Kopan egiten ari diren lan bikaina eta Zegama-Aizkorri erakutsitako jarrera aintzat hartuta, taldeka irabazteko hautagai dira euskal selekzioko ordezkariak. Izen handiak batuko zaizkie, gainera, Erkidegoka jokatu den lehian puntu onak metatzeko. Noski, horrek banakakoan ere lan ona egitea eskatzen du, eta hor ere puntan ibiltzeko hautagaiak izango dira EMF ordezkariak.

Espainiako Kopan parte hartzen ari den Euskal Herriko Mendi Lasterkarien selekzioko bloketik **Julen Martinez de Estibariz** (Espainiako Kopan 2.a da), **Iban Letamendi**, **Asier Larruzea** (Jerteko Espainiako Kopan 2.) eta **Asier Alonso** arituko dira mutiletan, eta Munduko Kopako blokeko **Hassan Aitchaou** (Zegaman beterano onena) batuko zaie. Erkidegoka Espainiako Txapelketan zazpi korrikalarik puntuatuko dutenez, luxuzko beste bi 'fitxaje'-k osatuko dute multzoa: **Aritz Egeak** eta **Iker Oliverik**. Egea bakarkako Txapela lortzeko faboritoetako bat izango da, eta Oliveriren esperientzia eta sasoi ona beti izango dira oso lagungarri.

Nesketan ere maila bikaina izango da: **Mayi Mujikari** (Espainiako Kopan 3.a da) **Nahia Quincoces** batuko zaio selekzioko ordezkari gisa; Zegaman 4. euskalduna izan zen Quincoces (Azkorbebeitia, Zorroza eta Fraileren segidan) eta Munduko Kopan lehiatzen da. Hemen ere, 'fitxajeak', goi mailakoak dira: **Maria Zorroza** (Transvulcaniako Maratoiko irabazle aurten), **Sandra Sevillano** (Espainiako Kopan 2.a da), **Maite Etxezarreta** (EH Txapelketan 5.a eta aurreko asteburura arte EMF Rankingeko liderra), eta **Ainhoa Lendinez** (EH Txapelketan 9.a).

Baja nabarmenena **Oihana Azkorbebeitia**rena da. Lan arrazoiengatik ezin izango du parte hartu Mabon. Zegama Aizkorri 6.a, Euskal Herriko txapelduna linean eta Espainiako bertikalean, eta denboraldi hontan 11 garaipen, abadiñoarra ekainaren 16an Munduko Kopan berragertuko da, Livignon, Italiako Alpeetan.

Mabo Borriol maratoi distantziako lasterketa da eta 2550 metroko desnibel positiboa du (Metatuak 5100 metro). Goizeko 7:00etan hasiko da proba.

Juniorretan ere ordezkariak badu EMF-k: **Irati Zubizarreta**, **Jon Baleztana** eta **Aitor Ajuria**. 21 kilometro eta 1200 metro positibo izango dituen beren mailako Espainiako Txapelketan lehiatuko dira hirurak.





MUNDUKO KOPA

OIHANA AZKORBEBEITIA (Abadiño)
NAHIA QUINCOCES (Mendexa)
JOKIN LIZEAGA (Urneta, Zanpatuz ME)
HASSAN AITCHAOU (Villabona, Idiazabal KE)
IMANOL GOÑI (Ea, ArrolapeMT)

MUNDUKO ULTRA TXAPELKETA

LEIRE MARTINEZ (Portugaleta, Erlaitz ME)
JAVI DOMINGUEZ (Gasteiz)
JON ERDAIDE (Gorliz, Zanpatuz ME)
RAUL MACARRO (Bilbo)

ESPAINIAKO KOPA ETA TXAPELKETA

AITZIBER IBARBIA (Zizurkil, Aizkardi ME)
MAYI MUJIKA (Urretxu, Morkaiko ME)
IBAN LETAMENDI (Oñati, Aloña Mendi KE)
JULEN MARTINEZ DE ESTIBALIZ (Hermua)
ASIER ALONSO (Oñati, Zortzietakoak KE)
ANDER IÑARRA (Lezo)
XABIER MACIAS (Iruña, Sestao Alpino)
ASIER LARRUZEA (Güeñes, Azpigorri MK)



Mendi Lasterketen Euskal Selektzioaren 2018ko EGUTEGIA

MARTXOA

8 Espainiako Kopa Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga

APIRILA

15 Espainiako Kopa Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres

MAIATZA

6 Espainiako Kopa Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona
20 Espainiako Txapelketa KB KV Arredondo, Cantabria
27 Munduko Kopa Zegama-Aizkorri

EKAINA

10 Espainiako Txapelketa Mabo, Borriol, Castellon
16 Munduko Kopa Livigno SkyMarathon (Italia)
23 Munduko Kopa Olympus Marathon, Dion (Grezia)
24 Espainiako Kopa Zumaia Flysch Trail

UZTAILA

1 Munduko Kopa Buff Epic trail, Barruera, Lleida
29 Munduko Kopa Comapedrosa Skyrace (Andorra)

ABUZTUA

5 Espainiako Kopa Vistabella, Castellón
25 Munduko Kopa Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)

IRAILA

1 Espainiako Ultra Txap Valle de Tena, Panticosa
1 Munduko Kopa The Rut (Amerikako Estatu Batuak)
14 Munduko Ultra Txap Ben Nevis Ultra (Eskozia)

URRIA

13 Munduko Kopa Limone Extreme (Italia)



EMF egutegi ofiziala: Euskal Herriko Mendi Lasterketak

Euskal Mendizale Federazioaren 2018 denboraldiko Lasterketa Rankinga -orain arteko Kopa eta sailkapen konbinatua ordezkatzeko dituen-, bero bero dago. . Guztira 15 probek osatzen dute, eta jada zazpi jokatu dira, azkenak Galdames Mendi Bira eta EH Mendi Erronka ultra. Lider aldaketa gizonetara, **Igor Urionabarrenetxea** aulestiarra Galdamesen 5. amaituta buruan jarri da orain. **Lorena Guinaldo** eibartarrak 2. egin zuen Galdamesen eta sendotu egin du Rankingeko lidertza, non Galdamesko irabazlea, Vanessa Pelaez, aurtengo korrikalari indartsuenetako bat, bigarren jarri den. Datorren asteburuan hiru hitzordu: Gabez Takarraran (Eskoriatza), Intxixu Trail (Oiartzun) eta Lakuntza-Aralar (Lakuntza).

EMF RANKINGA 2018

Gizonezkoak

1. Igor Urionabarrenetxea (Arrolape)	3968
2. Aideo Lopez de Arbina (Bertakoak)	3613
3. Asier Larruzeta (Azpigorri)	2996
4. Walter Becerra (Sestao Alpino)	2988
5. Ugutz Pereda (Bilbao AC)	2938

Emakumezkoak

1. Lorena Guinaldo (Trail Erraz)	2995
2. Vanessa Pelaez (Sestao Alpino)	1999
3. Silvia Trigueros (Durangoko M)	1998
4. Uxo Irigoyen (Pagoeta)	1998
5. Maite Etxezarreta (Sokaitz)	1996

EMF TXAPELKETAK 2018

APIRILA

22 Linea [Aloñako Igoera](#) Oñati

UZTAILA

13-15 Ultra [Ehun Milak](#) Beasain

IRAILA

23 Bertikala [Uharte Arakil-Beriain](#) Uharte-Arakil

EMF RANKINGA 2018

URTARRILA

13 Linea [Kalamua Barinaga jaitsiera](#) Markina-Xemein

MARTXOA

24 Linea [Kolaziño Mendi Eguna](#) Bedia

APIRILA

28 Ultra [Nafarroa Xtreme](#) Zubiri

29 Linea [Pagoeta Mendi Lasterketa](#) Zarautz

EKAINA

2 Ultra [EH Mendi Erronka](#) Leitza

2 Linea [Galdames Mendi Bira](#) Galdames

9 Linea [Gabez Takarraran](#) Eskoriatza

10 Linea [Intxixu Trail](#) Oiartzun

10 Linea [Lakuntza Aralar](#) Lakuntza

17 Linea [Amurrio Trail](#) Amurrio

17 Linea [T3T](#) Tolosa

24 Linea [Triku Trail](#) Etxarri-Aranatz

IRAILA

9 Linea [Axari Trail](#) Idiazabal

15 Bertikala [Intza Ttutturre](#) Intza

URRIA

6 Bertikala [Anboto KB](#) Atxondo